


kultur leihoa • kultur leihoa • kultur leihoa

ezagutzen al
duzu Donostia?

Ekogor

Ekogor soilik edo *Ekogor Aundi* baserria Ibaetan dago, Igaratik iparraldera Igeldo mendiko egutera eder batean. Joan den mendearen erdi aldera egin ziren etxe zerrendetan *Ekogor* Ibaetako barrutiari dagokio eta auzo honetako 60. zenbakia zeraman. Hau horrela izan da administrazio zibilaren aldetik baina ez animei dagokien gauzetan, zeren eta asunto hauetarako Igeldoko San Pedro parrokiari baitzegokion orain gutxi arte. *Ekogor*ren ondoan, auzoan dagoen *Pokopandegi* baserria, aldiz, Antiguako parrokiari dagokio. *Ekogor Aundiz* gain badira izen hau daramaten beste bi baserri: bata, *Ekogor Txiki* iparrendebalderago, mendiaren hegian altuago kokatua, eta *Errotatxo* edo *Ekogor Azpikoa*, hego ekialderagoko hegian, Sorgin-Erreka deituriko errekatik hurbil. Herriarren sinesmenak dio aipatu erreka ilun honetan sorginak bizi direla. Jakina denez, Igeldok ez du (eta ez zuen) errotarik. Badirudi garai haietan igeldoarrak Igarara jaisten zirela artoa eta garia ehotzeko. Ziur aski *Errotatxo* iharduera horretarako egin zen baina XVIII mendearen erdialdean ez zegoen



Ekogor baserria. XVIII mendeko eraikin ederra.



Igaratik Igeldorako bide zaharra
Ekogortik gora.



Zikoina bat *Ekogor* baserriko atarietan 1995. urtean.

martxan. *Ekogor Aundi* baserria oso eraikin ederra da, paregabeko harlandutako leiho, ate eta ertzak ditu. Aurrealdean, berriz, hama-hiru itsu baten profila. *Ekogor*ren aipamen zaharre-

nak 1566. urteko Donostiako erroldan daude. P. Barrio Panguak argitaratu zuen errolda honetan hiriko kaleetan bizi ziren familiak aipatzen dira. Hauen artean, «Calle de Lamoleta»n, beste

auzotarren artean «Joanes de Ecogora dueño de la casa de Ecogora en Ibaeta, jurisdicción de esta villa» agertzen da.

ARGAZKIAK ETA TESTUA: JOSU TELLABIDE

Argitarapen honen edizioko laguntzaila:

En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa
fundación